

## **IRABAZI ITURRIAK**

Gure proiektuaren prezioa ez da finkoa, pertsona kopuruaren eta gelaren tamainaren arabera da. 25 pertsona inguruko gela batek 10 000 euro inguru balioko duela kalkulatu dugu. Bezeroak hainbat modutan ordain dezakete (banku bitartez, transferentzia bitartez...). Diru kantitatea kontutan hartuta, epe desberdinetan ordaintzea eskainiko dugu. Hasieran, prezioaren erdia ordaindu beharko dute, ondoren, urte erdia izango dute prezioaren laurdena ordaintzeko eta urte batean dena ordainduta eduki beharko dute. Bezeroek kontuan izan behar dutena da, prezio altuaren jatorria da: alde batetik, altzari eta teknologia enpresek ekoiztako produktuak ordaindu behar dituztela; gainera, muntaketa eta garraio-enpresek ere haien lanagatik irabaziak lortu behar dituztela; eta, bukatzeko, guk ere etekinak lortu behar ditugu guztia planifikatu eta antolatzeagatik.

Prezioa garestia izan daiteke, baina inbertsio ona da aurrerago empresa edo ikasketa erakundea hobetzeko.

